

UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

Ingurumen Saila

Sailkatze tasa
Herriz herri, urtez urte

2017

SAILKATZE TASA

Sailkatze tasak adierazten du bildutako hondakinetatik zenbat jaso diren bereiztuta. Honela kalkulatzen da:

$$\text{Sailkatze tasa} = [\text{gaika jasotako hondakinak} / \text{jasotako hondakin guztiak}] * 100$$

Atal honetan bi adierazle eskainiko ditugu. Bien abiapuntua berbera da, hain zuzen ere Udal Elkarteko bost udalerrietan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaian) jasotzen diren hiri hondakin guztietatik bereiztuta zenbat jasotzen den kalkulatzea (balorizatza bideratzeko). Lehendabiziko adierazleak kontuan hartzen ditu kaleko edukiontzien bidez jasotako hondakinak eta bigarrenak, berriz, kaleko edukiontzietan nahiz garbiguneetan jasotakoak.

1. Kaleko edukiontzien bidez jasotako hondakinen sailkatze tasa

Adierazle honek soilik kontuan hartzen ditu kaleko edukiontzien bidez jasotako hiri hondakinak. Baloriza daitezkeen hondakin gisa hartzen ditu gaika bereiz jasotako frakzioak eta balorizatzen ez diren hondakin gisa errefusa.

2. Kaleko edukiontzietan nahiz garbiguneetan jasotako hondakinen sailkatze tasa

Adierazle honek kontuan hartzen ditu Udal Elkarteak eta udalek kaleko edukiontzietan garbiguneetan nahiz sailkapen eremuan jasotako hiri hondakinak, guztiak. Baloriza daitezkeen hondakin gisa hartzen ditu gaika bereiz jasotako frakzioak eta balorizatzen ez diren hondakin gisa errefusa.

1. SAILKATZE TASA: KALEKO EDUKIONTZIAK

Adierazle honek soilik kontuan hartzen ditu edukiontzien bidez jasotako hondakinak.

Baloriza daitezkeen hondakin gisa hartzen ditu gaika bereiz jasotako frakzioak eta balorizatzen ez diren hondakin gisa, berriz, errefusa.

$$\text{Sailkatze tasa} = \frac{\text{Gaika jasotako hondakinak (berrerabili edo birziklatzeko)} \\ \text{Kaleko edukiontzietan bereiztuta jasotako hondakinak, errefusa izan ezik}}{\text{Kaleko edukiontzietan jasotako hondakin guztiak}} \times 100$$

Kaleko edukiontzietan bereiztuta jasotako hondakinak, errefusa barne


Hona hemen, batetik, kaleko edukiontzien sailkatze tasa 2017an herriz herri eta, bestetik, kaleko edukiontzien sailkatze tasaren bilakaera, 2010-2017 epealdian, herriz herri:

Sailkatze tasa 2017: kaleko edukiontzia

	Guztira (Kg)	Aia	Getaria	Orio	Zarautz	Zumaia
Errefusa	11.202.160	693.455	1.105.025	1.451.560	5.579.880	2.372.240
Bereiztuta	7.230.368	242.141	658.348	934.212	3.684.147	1.711.520
Guztira	18.432.528	935.596	1.763.373	2.385.772	9.264.027	4.083.760
Sailkatze-tasa 2017	39,23	25,88	37,33	39,16	39,77	41,91

Kaleko edukiontzien sailkatze tasaren bilakaera, 2010-2017, herriz herri

Udalerria	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Aia	25,27	23,90	24,64	23,85	25,91	24,88	26,19	25,88
Getaria	21,23	23,77	27,76	30,80	33,69	34,68	35,66	37,33
Orio	23,64	28,38	32,94	38,18	41,65	41,51	40,73	39,16
Zarautz	28,95	30,54	39,52	41,60	41,81	40,01	41,25	39,77
Zumaia	27,81	28,59	34,50	42,17	42,33	42,55	41,36	41,91
Bost herriak	27,12	28,84	35,66	39,27	40,28	39,49	39,88	39,23



2. BIRZIKLATZE TASA: KALEKO EDUKIONTZIAK ETA GARBIGUNEAK

Atal honen sarrerakoan adierazi dugun moduan, bigarren adierazlean kaleko edukiontzien bidez eta garbiguneen (garbiguneen eta sailkapen eremuaren) bidez bereiz jasotako hiri hondakinak hartuko ditugu kontuan, izan ere, garbiguneetan hiri hondakinak uzten dituzte eskualdeko herritarrek eta gremio txikiek eta, nolabait esan, garbiguneen zerbitzua kaleko edukiontzien zerbitzuaren osagarri da.

Adierazle honetan baloriza daitezkeen hondakin gisa hartu ditugu kaleko edukiontzietan, garbiguneetan eta sailkapen plantan gaika bereiz jasotako frakzioak eta balorizatzen ez diren hondakin gisa hiru zerbitzu horietan jasotako errefusa. Bestalde, adierazle hau bost udalerrriak batera hartuta kalkulatu dugu, izan ere, garbiguneak hiru udalerritan daude (Zarautz, Zumaia eta Aian) baina bost udalerrietako edozein herritar edo gremio txikik erabil ditzake.

$$\text{Sailkatze tasa} = \frac{\text{Gaika jasotako hondakinak (berrerabili edo birziklatzeko)}}{\text{Kaleko edukiontzietan, garbiguneetan eta sailkapen plantan bereiztuta jasotako hondakinak, errefusa izan ezik}} \times 100$$

$$\text{Sailkatze tasa} = \frac{\text{Kaleko edukiontzietan eta garbiguneetan jasotako hondakin guztiak}}{\text{Kaleko edukiontzietan, garbiguneetan eta sailkapen plantan bereiztuta jasotako hondakinak, errefusa barne}}$$

Sailkatze tasa 2010-2017: kaleko edukiontzia, garbiguneak eta sailkapen planta

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Birziklatzera (Kg)	7.202.096	7.577.475	8.371.482	8.781.966	9.094.310	10.065.771	10.428.382	10.406.331
Errefusa (Kg)	14.141.739	13.992.338	12.048.580	10.931.430	10.917.888	11.437.690	11.528.890	11.879.510
Sailkatze tasa %	33,74	35,13	41,00	44,55	45,44	46,81	47,49	46,69

